



SEGURTASUN SAILA
Babes Zibileko Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Protección Civil
Dirección de Tráfico

13/2025 INSTRUKZIOA (TLB- 9/ E- 9)

GAIA: Egitura euromodularreko multzoak ibiltzeko baldintzak.

I.- EGITURA EUROMODULARRA.

"Egitura euromodularra" kontzeptuaren definizioa ezarri zuen abenduaren 18ko PRE/2788/2015 Aginduak. Manu honek Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean, IEO) IX. eranskina aldatu zuen, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

Hala, multzo euromodularra (aurrerantzean, MEM) osatuko dute sei ardatz-lerro baino gehiago edo gutxienez hiru modulu dituzten ibilgailuak, baldin eta ez badituzte gainditzen, bereizita eta banaka hartuta, IEOn IX. Eranskinean dagokion ibilgailu-mota bakoitzerako ezarritako gehieneko balioak, masari eta neurriei dagokienez.

MEMen gehieneko balioak 32 metroko luzera eta 72 tona izan daitezke. Ezin izango dituzte inolaz ere gainditu masari dagokienez ardatz bakoitzerako ezarritako gehieneko balioak, motaren arabera.

II.- ZIRKULATZEKO BETEKIZUNAK.

MEMen erabilera eta baimena sinplifikatu ditu (*Eco Combi* edo *Duo Trailer* barne) uztailaren 21eko PJC/780/2025 Aginduak. Manu honek abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II., IX., X. eta XVIII. eranskinak aldatu zituen. Hala, multzo horietarako berariazko baimena ezabatu du. Gainera, MEM guztien erabilera ebazpen bidez ezarritako betekizun teknikoen eta zirkulazio-baldintza espezifikoen mende geratu da (ebazpen hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Multzo horiek trafikoa arautzeko eta bide-segurtasuneko organo eskudunek egokitzat jotzen dituzten ibilbide-sarean zehar zirkulatu ahal izango dute, betiere bertatik igarotzeko bideetako titularrek, horietan dauden mugen ondorioz, ezar ditzaketen murrizketak kontuan hartuta.

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 01 87 44 – Faxa: 945 01 87 50





III.- ZIRKULATZEKO BALDINTZAK

1.- Seinaleztapena.

Multzoak V-2 argi-seinaleak izan beharko ditu edo, aukeran, anbar-argia duten distirak igortzeko gailuak, multzoaren aurrealdeko eta atzealdeko goiko muturretan kokatuta. Aurrekoez gain, honako hauek edukiko ditu: ibilgailu luzeko V-6 seinalea; ingurua seinaleztatze V-23 bereizteko marka; eta salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuetarako, IEOK nahitaezkoztat jotako seinaleztatze gainerako gailuak.

Zirkulazioaren bi noranzkoetarako galtzada bakarreko bide arruntetan, gurutzatze-argiak edo egunez zirkulatzeko argiak piztuta eraman behar dira.

2.- Eguraldi txarra eta ikuspen urria.

Ez dira ibiliko zirkulazioaren noranzko bietarako galtzada bakarreko errepide arruntetan eta plataformatik irten beharko dute honako kasuetan: alde batetik, ibilbidean zirkulaziorako arriskutsuak diren fenomeno meteorologiko kaltegarriak daudenean eta, aurrekoaz gain, 150 metroko gutxieneko ikuspenik ez dagoenean, ez aurrerantz, ez atzerantz; edo Euskalmetek abisu meteorologikoa aktibatzen duenean, haizeak eragindako maila gorriko muturreko arriskuagatik, baldin eta multzoa kargarekin zirkulatzeko ari bada, edo maila laranja, kargarik gabe zirkulatzeko ari bada; azkenik, maila laranja edo gorria bada, elurra edo euria dagoenean, zamatuta zein hutsik dabilenean.

Zirkulatzeko baldintza txarretan, hau da, elurra, izotza, laino trinkoa edo haize gogorra dagoenean, ezin izango dute zirkulatu eta modu egoki nahiz seguruan aparkatu beharko dute iragarritako eguraldia hobetu arte (Euskalmeten abisuen arabera).

3.- Abiadura.

Joan daitezkeen gehieneko abiadura Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorrak honako ibilgailuetarako ezarritakoa izango da: kamioiak; trakzio-kamioiak; furgonetak; 3.500 kg-tik gorako gehieneko masa baimenduta duten autokarabanak; ibilgailu artikulatuak; automobil atoidunak; eta gainerako ibilgailuak.

Hala ere, Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorraren 46. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, aurreko paragrafoan multzo horietarako finkatutako

gehieneko abiadura 10 km/h murriztuko da, une horretan dabilen bide-motaren arabera.

4.- Zirkulatzeko murrizketak.

Oro har salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuei zirkulatzeko ezarritako murrizketak errespetatuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak zirkulaziorako neurri bereziei buruzko urteroko ebazpenak ezarritakoaren arabera.

5.- Aurreratzea.

Zirkulazioaren bi noranzkoetarako galtzada bakarreko bideetatik dabiltzanean, ezin izango dira sartu kontrako noranzkorako erreietan 45 km/h-tik gorako abiaduran doazen ibilgailuak aurreratzeko asmoz.

Gainera, zirkulazioaren noranzkoan galtzada bikoitza duten bideetan, ezin izango dute beste ibilgailu bat aurreratu % 4ko edo gehiagoko malda duten arrapaletan, ez zubibide handietan (150 metrotik gorakoetan), ez tuneletan.

6.- Karga.

Garraiatu beharreko karga estibatu egin beharko da. Hala, multzoen egonkortasuna arriskuan jar dezakeen mugimendurik ez da gertatuko abian egon bitartean.

EMS multzo batek daraman zama ezin izango du hura daramaten ibilgailuen oinplanoaren proiektzioa inola ere gainditu. Aurrekoaz gain, ezin izango da bertan salgai arriskutsurik garraiatu horiek garraiatzearen arriskuaz ohartarazteko arauzko panelak eramatea beharrezkoa izanez gero, Salgai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioari buruzko Europako Akordioan (ADR) ezarritakoaren arabera. Horrelakoak eramateko, aipatutako Akordio honetan garraiorako ezarritako baldintzak eta mugak errespetatu beharko dira.

IV.- INDARRALDIA

Instrukzio honek 2025eko urriaren 23tik aurrera izango ditu ondorioak.

Estibaliz Olabarri González
Trafikoko Zuzendaria

I. ERANSKINA: EMS egituraren bitartez erabili ahal izango diren ibilgailu-motak

EMS egituradun multzoak ibilgailu-mota hauetako batekin bat datozen moduluez baino ezin dira osatuta egon:

Sailkapena, eraikitze -irizpidearen arabera (IEOren II. eranskina)	Deskribapena	Kategoria, homologazio -irizpidearen arabera (2)
22	Kamioia: BGM > 12.000 kg	N 3
23	Trakzio-kamioia	N 2 edo N 3
26	Furgoia: BGM > 12.000 kg	N 3
43	Atoia eta erdi-atoia: BGM > 10.000	O 4
65	Zerbitzu-makina, atoian eramatekoa (1)	O 4

- (1) Salgaiak garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzeko makinak baino ez dira baimenduko.
- (2) EUROPAKO PARLAMENTUAren ETA KONTSEILUAren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/858 (EB) ERREGELAMENDUAN xedatutakoaren arabera. Manu horren bitartez, ibilgailu motordunen eta haien atoiaren merkatuko eta ibilgailu horietarako sistemen, osagaien eta unitate tekniko independenteen homologazioa eta zaintza arautu ziren. Gainera, 715/2007 (EE) eta 595/2009 (EE) erregelamenduak aldatu eta 2007/46/EE Zuzentaraua indargabetu zuen.

EMS multzo baten banakako moduluek ezin izango dituzte inola ere gainditu IEOren IX. eranskinaren 2. eta 3. ataletan honako ibilgailuetarako ezarritako gehieneko balioak masa eta neurriei dagokienez eta ardatz-mota bakoitzerako: motordunak; atoiak; eta erdi-atoiak.



II. ERANSKINA: Baimendutako EMS egitura-motak.

IEOren IX. eranskineko 1. atalean ("Definizioak") egitura-mota honetarako ezarritako definizioarekin bat datozen EMS egiturak baimenduta daude.

Ondorio horietarako, modulutzat hartuko ditugu egitura-mota honetarako erabiltzeko aukera duten ibilgailu motordunak, atoiak edo erdi-atoiak. Saillapen horretan ere sartu dira "Diabolo" edo "Dolly" deituriko atoi bihurgailuak, erdiatoia eramateko bosgarren gurpila gehituta, geroago atoi bihurtzeko.

III. ERANSKINA: Betekizun teknikoak elkartzeko gailuei eta hurrengo eremuetan segurtasuna hobetzeari dagokienez: ikuseremua; seinaleztatzea; ohartaraztea edo arrisku-egoeren prebentzioa.

Multzoak eta bere moduluek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Ardatz eragileen esekidura pneumatikoa edo baliokidea.
- Angelu itsurako ispiluak edo detektagailuak.
- Erreia utzi dela ohartarazteko sistema edo erreian mantentzeko laguntza.
- Larrialdi-egoera bat automatikoki detektatzeko eta ibilgailuaren freno-sistema aktibatzeko gaitutako sistema, ibilgailuaren abiadura moteltzeko asmoz, talka ez egiteko edo kolpea arintzeko.
- Egonkortasuna kontrolatzeko sistema elektronikoa.
- Ibilgailu eragileak homologatuta egon behar du 72 tonako Multzoaren Gehieneko Masarako -MGMerako-. Ibilgailuen azterketa teknikoko txartelean agertzen den multzoaren gehieneko masa onargarria dela eta, haren balioak gainditu behar du ibilgailua abian dagoenean eramandako zamaren masari dagokiona.

Multzoaren gehieneko masa 72 tonatik beherako balioarekin homologatuz gero, ibilgailu eragile horrek ezin izango du zirkulatu EMS multzo baten barruan multzoaren guztizko gehieneko masa dagokion homologazio-balioa baino handiagoa denean.

Atoiontzi diharduen ibilgailu eragileak elkar lotzeko gailu homologatua izan beharko du. Gainera, hura instalatzeko baldintzei dagokienez, bermatu beharko du multzoaren guztizko masa abiatutako multzoak duen gehieneko masaren parekoa edo handiagoa izatea, 55. ECE Araudian ezarritako irizpideen arabera.

- Ibilgailu eragilea eta tarteko gisa jarduten duten O4 kategoriako ibilgailuak atoiontziak izango dira. Beraz, atoian eramateko ekipamendu elektriko, pneumatiko eta mekaniko egokia izan beharko dute.
- Tarteko O4 kategoriako ibilgailuek homologatuta egon beharko dute, atoian eramateko gaitasunarekin. Ibilgailuak dagoeneko matrikulatuta badaude eta atoian eramateko gaitasunik ez badute, horiek zaharberrituta legeztatu beharko da haien gaitasuna.
- Multzoaren ibilgailu eragilearen gutxienezko potentzia, oro har, 5 kW-koa izango da EMS multzoan zamatutako gehieneko masaren tona bakoitzeko. Gutxienezko potentzia hori 1 kW handituko da zamako gehieneko tona

bakoitzeko, % 5etik gorako malda eta kilometro bateko luzera dituzten zatietatik zirkulatu ahal izateko, multzoa ibiltzeko guztizko gehieneko masa 42 tonatik gorakoa denean.

Nolanahi ere, ibilgailuaren titularrak bermatu beharko du ibilgailuaren abioa % 5etik gorako malda eta kilometro bateko luzera dituzten tarte horietan, baita zoladura bustian ere.



IV. ERANSKINA: Ibilbideak

EMS multzoek ezarritako errepide-zatietan soilik zirkulatu ahal izango dute. Horietatik kanpo ezin izango dira ibili.

EMSak ibiltzeko bideei buruzko informazioa hurrengo euskarrietan argitaratuko da, betiere bide horietako titularren txostenetan oinarrituta: BOE; EHAA; eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren webgunea (www.trafiko.euskadi.eus). Horiek guztiek «Egitura Euromodularrerako Ibilbideen Sarea» (EEMIS) osatuko dute.

Sarean sartutako zatiez gain, EMS multzoek saretik kanpoko errepideetan gehienez ere 10 kilometrotan ibili ahal izango dute, baldin eta hori beharrezkoa bada sarea osatzen duten bi errepide-tarte lotu ahal izateko edo bidaiaren jatorritik sareko zati batera edo saretik helmugara iristeko. Gehieneko distantzia hori aldi bakoitzean hartuko da kontuan behin betiko sarerako irteera edo sarrera puntu bakoitzetik. Tarte horietan, ibilgailuaren titularrak ziurtatu egin beharko du zirkulazioa eragozten duen muga edo oztopo fisikorik ez egotea, baita ibilbidea alde zuzenetik eginez ere.

Nolanahi ere, zirkulazio-arau orokorrak errespetatuko ditu, baita honako alderdiei dagokienez bidean seinaleztatutakoa ere: igarotzeko mugak, abiadura, masak eta neurriak. Aurreko horiei erreparatuko die Instrukzio honetan xedatutakoaren gainetik.



SEGURTASUN SAILA
Babes Zibileko Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Protección Civil
Dirección de Tráfico

ARABAKO HIRIARTEKO ERREPIDEAK.

Errepidea	Tartea	Noranzkoa	Hasierako KP	Amaierako KP	Hasiera	Amaiera	Luzera
A-1	1A	Gorakorra	321,70	329,45	Burgosko muga (Miranda de Ebro)	Burgosko muga (Trobiñuko hegoaldea)	7,75
A-1	1B	Beherakorra	329,45	321,70	Burgosko muga (Trobiñuko hegoaldea)	Burgosko muga (Miranda de Ebro)	7,75
A-1	2A	Gorakorra	336,15	391,69	Burgosko muga (Trobiñuko iparraldea)	Nafarroako muga (Egino)	55,54
A-1	2B	Beherakorra	391,69	336,15	Nafarroako muga (Egino)	Burgosko muga (Trobiñuko iparraldea)	55,54
AP-1	1A	Gorakorra	77,200	83,200	Burgosko muga (Miranda de Ebro)	A-1 Armioñongo lotunea.	6,00
AP-1	1B	Beherakorra	83,200	77,200	A-1 Armioñongo lotunea	Burgosko muga (Miranda de Ebro)	6,00

AP-1	1A	Gorakorra	100,00	114,23	N-624 hiriartekoa Foronda biribilgunea	Gipuzkoako muga	14,23
AP-1	1B	Beherakorra	114,23	100,00	Gipuzkoako muga	N-624 hiriartekoa Foronda biribilgunea	14,23
AP-68	1A	Gorakorra	22,383	77,597	Bizkaiko muga	Burgosko muga	55,214
AP-68	1B	Beherakorra	77,597	22,383	Burgosko muga	Bizkaiko muga	55,214
N-102	1A	Gorakorra	342,79	347,74	Ariñez (A-1 hiriartekoa)	Mariturriko bulebarreko biribilgunea	4,95
N-102	1B	Beherakorra	347,74	342,75	Mariturriko bulebarreko biribilgunea	Ariñez (A-1 hiriartekoa)	4,99
N-124	1A	Gorakorra	24,33	25,50	A-1 hiriartekoa zubi berrian	Tarte bikoiztuaren amaiera	1,17
N-124	1B	Beherakorra	25,50	24,74	Tarte bikoiztuaren amaiera	A-1 hiriartekoa zubi berrian	0,76
N-124	2	Gorakorra	25,50	38,57	Tarte bikoiztuaren amaiera	A-124 hiriartekoa Briñasen	13,07
N-240	1A	Gorakorra	4,57	15,02	Gamarra Nagusiko semaforoa	Galtzada bikoitzaren amaiera	10,45
N-240	1B	Beherakorra	15,02	4,57	Galtzada bikoitzaren amaiera	Gamarra Nagusiko semaforoa	10,45

N-622	1A	Gorakorra	3,97	12,70	Zadorra hiribidearen gaineko zubira sartzeko adarrak.	A-3600 hiriartekoa Letonako lotunea	8,73
N-622	1B	Beherakorra	12,70	3,97	A-3600 hiriartekoa Letonako lotunea	Hiribidearen gaineko zubira sartzeko adarrak. Zadorra	8,73
N-622	2A	Gorakorra	12,70	23,32	A-3600 hiriartekoa Letonako lotunea	Ap-68 hiriartekoa Altuben	10,62
N-622	2B	Beherakorra	23,32	12,70	Ap-68 hiriartekoa Altuben	A-3600 hiriartekoa Letonako lotunea	10,62
N-624	1A	Gorakorra	8,99	11,00	A-3606 hiriartekoa (Forondako biribilgunea)	Aireportuko esteka	2,01
N-624	1B	Beherakorra	10,73	8,99	Aireportuko esteka	A-3606 hiriartekoa (Forondako biribilgunea)	1,74
A-625	2A	Gorakorra	369,85	372,49	A-3638 IP	Bizkaiko muga (Areta)	2,64
A-625	2B	Beherakorra	372,49	369,85	Bizkaiko muga (Areta)	A-3638 IP	2,64

2. GIPUZKOAKO HIRIARTEKO ERREPIDEAK.

A. LEHENTASUNEZKO SAREKO ERREPIDEAK (SARE GORRIA)

Errepidea	Izena	Jatorrizko KP	Jatorria	Amaiera ko KP	Amaiera	Luzera
AP-1	Gasteiz-Irun autobidea Eibartik	114,246	Arabako muga (Leintz Gatzaga)	146,194	AP-8rekiko Maltzagako lotunea	31,948
	Gainjartzea AP-8rekin	146,194	AP-8rekiko Maltzagako lotunea	215,728	Frantziarekiko muga (Behobia)	
AP-8	Kantauriko autobidea	0,000	Frantziarekiko muga (Behobia)	74,941	Bizkaiarekiko muga (Eibar)	74,941
A-15	Nafarroa-Gipuzkoa autobidea	139,760	Nafarroako muga (Berastegi)	156,673	N-Ieko 445,25 KP, Andoain	16,913
	N-Iekin gainjartzea	156,673	N-Ieko 445,25 KP, Andoain	158,734	Andoaingo iparraldeko lotunea	---
		158,734	Bazkardoko lotunea (Andoain)	169,314	AP-8 eta GI-41 arteko lotunea Astigarragan	10,580
A-636	Beasainetik Durangora Kanpanzarretik	0,000	N-I lotunea 417,90 kp	22,772	AP-1ekiko lotunea Bergaran	22,772
N-I	Madriidik Irunera	405,450	Nafarroako muga (Etzegarate)	454,302	AP-1 eta AP-8rekiko lotunea Lasarte-Orian	48,852

B. OINARRIZKO SAREKO ERREPIDEAK (SARE LARANJA)

Errepidea	Izena	Jatorrizko KP	Jatorria	Amaiera ko KP	Amaiera	Km-ko luzera
GI-11	N-I errepidearen eta Donostiako saihesbidearen arteko lotunea, Aritzetatik.	0,000	N-Ieko 453,44 KP	2,559	GI-20 errepideko 13,00 KP	2,559
GI-20	Donostiako saihesbidea.	0,000	AP-8arekiko lotunea Errenterian	15,867	AP-8rekiko lotunea Aritzetan	15,867
GI-40	Intxaurrondo-Martutene-Ospitaleak erronda.	0,000	Garberako biribilgunea	3,862	GI-20rekiko lotunea, 9,42 KP	3,862
GI-41	Donostiarako hegoaldeko sarbidea Urumeatik.	0,000	AP-8 eta GI-41 arteko lotunea Astigarragan	1,400	Martuteneko biribilgunea	1,400

3. BIZKAIKO HIRIARTEKO ERREPIDEAK.

JATORRIA	HELMUGA	PISUA (Tn)	LUZEA (m)	ZABALERA (m)	ALTUA (m)	IBILBIDEA
ARRIGORRIAGA	BARAZAR	100	22	5,28	4,7	BI-625, AP-8, N-240, LHM
ARRIGORRIAGA	HAYA	140	25	6,7	4,7	BI-625, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
ARRIGORRIAGA	HAYA	140	22	6	4,7	BI-625, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
ARRIGORRIAGA	SANTURTZI	140	40	5	4,7	BI-625, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
ALONSOTEGI	HAYA	160	35	4,5	4,7	BI-3651, BI-636, BI-10, A-8, N-634, LHM
ARTEA	HAYA	176	45	4,5	4,7	N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
BARAZAR	HAYA	176	45	4,5	4,7	LHM, N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
BARAZAR	HAYA	176	20	6,1	4,7	LHM, N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
BARAZAR	SANTURTZIKO PORTUA	176	40	5,5	4,8	LHM, N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
BARAZAR	SANTURTZIKO PORTUA	176	45	5	4,8	LHM, N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
BARAZAR	MARKINA	163	25	5,9	4,75	LHM, N-240, N-634, BI-633, BI-4404
BARAZAR	SESTAO/ABB	170	24	5	4,85	LHM, N-240, AP-8, BI-30, BI-10, A-8, 127B IRTEERA
BARAZAR	DURANGO	160	22	4,6	4,8	LHM, N-240, BI-635, BI-3334, BI-4342, N-634
BARAZAR	BASAURI	160	25	5,5	4,7	LHM, N-240, N-634, BI-625
BARAZAR	LHM BI-625	160	30	5	4,7	LHM, N-240, A-8, BI-625, LHM
BASAURI	BARAZAR	165	25	5,5	4,7	BI-625, AP-8, N-240, LHM
BASAURI	KANPAZAR	160	25	5,5	4,7	N-634, AP-8, N-636, LHM.
BASAURI	HAYA	160	30	5,5	4,7	BI-625, N-634, BI-737, BI-30, BI-10, A-8, LHM
BASAURI	HAYA	160	30	5,5	4,7	BI-625, N-634, BI-737, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA

BEDIA	GALDAKAO	165	30	6	4,7	N-240, A-8, BI-625, N-634
BEDIA	LHM BI-625	150	38	6,4	4,7	Bedia, N-240, AP-8, BI-30, AP-8, BI-625, AP-68, BI-625, L.H.T
SESTAO/ABB	HAYA	201	50	5	4,7	BI-728, BI-3749, A-8, LHM
SESTAO/ABB	HAYA	201	22	8	4,7	BI-728, BI-3749, A-8, LHM
SESTAO/ABB	HAYA	202	20,9	9	4,5	BI-728, BI-3749, A-8, LHM
SESTAO/ABB	ZIERBENA	120	20,9	9	4,7	BI-728, BI-3749, A-8, BI-2794
SESTAO/ABB	SANTURTZIKO PORTUA	201	50	5	4,7	BI-728, BI-3749, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
SESTAO/ABB	SANTURTZIKO PORTUA	201	25	7	4,7	BI-728, BI-3749, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
LHM BI-625	HAYA	160	35	4,5	4,7	LHM, BI-625, A-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
LHM BI-625	HAYA	160	30	7,2	4,7	LHM, BI-625, A-8, BI-30, BI-10, A-8, LHM
LHM BI-625	SANTURTZIKO PORTUA	160	38,6	5,55	4,7	LHM, BI-625, A-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
LHM BI-625	SANTURTZIKO PORTUA	160	28	6,5	4,7	LHM, BI-625, A-8, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
LHM BI-625	GALDAKAO	160	28	5,2	4,7	LHM, BI-625, N-634
LHM BI-625	GALDAKAO	160	20,2	5,96	4,7	LHM, BI-625, N-634
AP-68	SANTURTZIKO PORTUA	100	82	4,7	4,7	AP-68, A-8, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
AP-68	HAYA	100	89	4,5	4,7	AP-68, A-8, BI-10, A-8, LHM
BASAURI	KANPAZAR	165	25	5,5	4,65	N-634, AP-8, N-636, LHM.
PAGOA	SANTURTZIKO PORTUA	201	55	5	4,8	LHM, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
PAGOA	SANTURTZIKO PORTUA	201	81,5	4,5	4,8	LHM, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
EL HAYA	SANTURTZIKO PORTUA	201	30,81	7,2	4,8	LHM, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
EL HAYA	SANTURTZIKO PORTUA	200	35	7	4,8	LHM, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA

EL HAYA	SANTURTZIKO PORTUA	201	45	5,6	4,8	LHM, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
EL HAYA	BARAZAR	176	40	4,5	4,8	LHM, A-8, BI-10, BI-30, AP-8, N-240, LHM
EL HAYA	ERANDIO	150	26	7	4,8	LHM., N-634, A-8, BI-10, BI-30, BI-735
EL HAYA	MUSKIZ	100	25	5,75	4,7	LHM., A-8, BI-3794
EL HAYA	KANPAZAR	152	40	5	4,7	LHM, A-8, BI-10, BI-30, BI-2713, N-634, AP-8, N-636, LHM
EL HAYA	ARRIGORRIAGA	150	28	5,5	4,7	LHM, N-634, A-8, BI-10, BI-30, BI-737, N-634, BI-625
EL HAYA	LHM BI-625	150	38	4,5	4,7	LHM, N-634, A-8, BI-10, BI-30, BI-737, N-634, BI-625, LHM
EL HAYA	GIPUZKOA	150	40	5	4,7	LHM, A-8, BI-10, BI-30, BI-737, N-634, LHM
ERANDIO	HAYA	150	38	3,5	4,8	BI-735, BI-30, BI-10, A-8, LHM
GALDAKAO	BARAZAR	150	35	6,1	4,8	N-634, A-8, N-240, LHM
GALDAKAO	HAYA	160	32	6	4,8	N-634, BI-737, BI-30, BI-10, A-8, LHM
GALDAKAO	SANTURTZI	160	35	6	4,8	N-634, BI-737, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
GALLARTA	DIMA	100	27	4,5	4,7	BI-2757, N-639, A-8, BI-10, BI-30, A-8, N-240, BI-2543
GIPUZKOA	HAYA	122	40	5	4,7	, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, LHM
GIPUZKOA	HAYA	122	21	7,35	4,7	LHM, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, LHM
GIPUZKOA	MARKINA	193,5	28	5,5	4,7	LHM, N-634, BI-633, BI-4404
GIPUZKOA	SANTURTZIKO PORTUA	122	40	5	4,7	LHM, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
GIPUZKOA	SANTURTZIKO PORTUA	122	21	7,35	4,7	LHM, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
GIPUZKOA	SANTURTZIKO PORTUA	122	35	7,2	4,7	LHM, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
GIPUZKOA	ERANDIO	130	22	5,5	4,7	LHM, N-634, BI-737, BI-30, BI-637, BI-747
GIPUZKOA	LHM BI-625	150	25	5,5	4,7	LHM, N-634, BI-625, LHM

GUEÑES	HAYA	150	42	4,5	4,5	BI-3651, BI-636, BI-10, A-8, LHM
KANPAZAR	HAYA	141,5	25	5,5	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-625
KANPAZAR	HAYA	160	28	5,5	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, LHM
KANPAZAR	HAYA	160	37	4,5	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, LHM
KANPAZAR	LHM BI-625	150	28	5,5	4,7	L.H.T., N-636, BI-633, N-634, BI-625, L.H.T.
KANPAZAR	MARKINA	193,5	28	5,5	4,8	LHM, N-636, BI-633, BI-4404
KANPAZAR	SANTURTZIKO PORTUA	193,5	28	5,8	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
KANPAZAR	SANTURTZIKO PORTUA	193,5	35	5,5	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
KANPAZAR	MUNGIA	100	20	5,5	4,7	LHM., N-634, BI-737, BI-30, BI-631, BI-2121
KANPAZAR	ZAMUDIO	165	25	5,9	4,7	LHM., N-636, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-20, BI-3738
MARKINA	BARAZAR	165	25	5,5	4,7	BI-4404, BI-633, N-634, N-240, LHM
MARKINA	SANTURTZIKO PORTUA	193,5	28	5,5	4,65	BI-4404, BI-633, N-634, BI-2713, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
MARKINA	KANPAZAR	193,5	28	5,5	4,7	BI-4404, BI-633, N-634, N-636, LHM
MUNGIA	GIPUZKOA	100	28	4,9	4,7	BI-631, BI-30, BI-737, N-634, LHM
MURUETA	ERANDIO	100	25	6,95	4,7	BI-2235, BI-2238, BI-635, N-634, BI-737, BI-30, BI-11, BI-735, BI-711
ORTUELLA	SANTURTZIKO PORTUA	154	33,79	4,25	5,5	BI-757, N-634, N-639
ORTUELLA	SANTURTZIKO PORTUA	154	30	4,5	5,5	BI-757, N-634, N-639
ORTUELLA	SANTURTZIKO PORTUA	154	40	4,7	4,7	BI-628, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
ORTUELLA	HAYA	154	40	4,5	4,7	BI-628, A-8, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	HAYA	100	81,45	4,5	4,7	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-10, A-8, AP-68

SANTURTZIKO PORTUA	BARAZAR	176	40	5,5	4,7	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-10, BI-30, AP-8, N-240, LHM.
SANTURTZIKO PORTUA	HAYA	186	81,45 (PALAK)	5	4,8	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	HAYA	186	55	5	4,8	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	HAYA	186	40	6,5	4,8	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	KANPAZAR	193,5	30	5,9	4,7	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-10, BI-30, BI-2713, N-634, AP-8, N-636, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	KANPAZAR	193,5	35	4,5	4,7	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-10, BI-30, BI-2713, N-634, AP-8, N-636, LHM
SANTURTZIKO PORTUA	MARKINA	193,5	28	4,5	4,65	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-10, BI-30, BI-2713, N-634, BI-633, BI-4404
SANTURTZIKO PORTUA	SESTAO/ABB	201	50	5	4,7	SANTURTZIKO PORTUA, N-644, A-8, BI-3749, BI-728
SANTURTZIKO PORTUA	ORTUELLA	170	35	4,5	4,8	Santurtziko portua, N-644, BI-728
URDULIZ	SANTURTZIKO PORTUA	201	39,9	5,5	4,95	URDULIZ, BI-3114, BI-637, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA*
ZALLA	HAYA	130	35	4,5	4,7	BI-636, BI-10, A-8, LHM.
ZAMUDIO	HAYA	176	28	5,5	4,65	BI-3738, BI-30, BI-2713, N-634, N-240, LHM
ZAMUDIO	KANPAZAR	165	25	5,9	4,65	BI-3738, BI-30, BI-2713, N-634, AP-8, N-636, LHM
ZAMUDIO	SANTURTZI	193,5	28	4,5	4,65	BI-3738, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA
ZAMUDIO	SANTURTZI	193,5	25	5,5	4,65	BI-3738, BI-30, BI-10, A-8, N-644, SANTURTZIKO PORTUA

* 4,5 metroko altueratik aurrera, Artazako biribilgunetik (BI-637), Avanzada kontrako norazkoan abiatu behar da BI-738 errepidetik unibertsitateko irteeraraino.

* 4,8 metroko garaieratik aurrera, A-8ko 126. irteeratik sartzen da portura, BI-628 errepideko El Árbol industrialdeko biribilgunetik.